

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## HESIAK GAINDITU DITUEN BIDEGILEA

Andoainen bizi den Olatz Odriozola urnietarrak Valkenburgeko Munduko ziklo-kros txapelketan parte hartuko du, lehen aldiz, asteburu honetan / 10-11

AIURRI

## Inauterien atarian

Andoainen eta Urnietan otsailaren hamarreko ospakizuna lantzen ari dira / 2-5

**"Euskaraldia",  
iritzia Euskaltzaleen  
Topaguneko  
kide den Martinez  
de Lagosen eskutik / 6**

**Errefusa biltzeko  
bilera sorta  
Sorabillan,  
Alejandro Kalonjen  
eta Olagainen / 8**

**EGAPE IKASTOLA**  
BIZITZARAKO HEZKUNTZA

**MATRIKULA  
ZABALIK!!**

**URTARRILAREN 29tik  
OTSAILAREN 9ra**

[www.egape.org](http://www.egape.org) / [www.egapebhi.org](http://www.egapebhi.org)

# Puska biltzaileak, inauteriaren iragarle

Puska biltzearen aspaldiko usadioa biziberritu zuten Sorabilla auzoan, joan zen asteburuan. Axerriak eta txistulariak etxe eta baserri ezberdinetan ibili ziren, harrera bikaina jasoz. Sorabillako plazatzxoa amaitu zen goiz osoko jardunaldia

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Axeri dantzariak Puska biltzearen usadioari eutsi zioten joan zen larunbatean, negu giroko eguraldiari aurre eginez. Sorabillako baserri eta etxeetan inauterien jaiaren iragarle bilakatu ziren. Goiz guztian auzo horretan ez zen Axeri dantzako dantza-jokorik falta izan, ezta jolasik edo eta umore eta ziri sartzerik ere.

Hogei bat axeri dantzarik eta hiru txistularik osatu zuten aurtengo taldea. Goizeko zortziretan Kale Nagusitik abiatu eta Sorabillako hainbat baserrietan dantzan eta kantuan aritu ziren. Honakoetan: Allurralde Goikoa, Mendiluze, Borda, Intusaran, Morkaio, Koskaran... Trukean, bertakoek eskainitako mokaduaz gozatu ahal izan zuten, eguerdirako auzoko plazara jaitsi aurretik.

Frontoian, San Juan egunez-Goikoplazan egiten dituzten dantza jokoak eskaini zituzten. Ondoren, auzoko Jai Batzordeak prestatutako hamaiketakoarekin amaitu zuten jai, bertaratu ziren ikusleekin batera.

Andoain inauteri giroan murgiltzen ari da. Ohitura zaharrak beste ohitura bati pasako dio lekukoa, asteburu honetan. Kaldereroek herria girotuko dute, soinu eta doinu.



Borda etxean dorrea osatu zuten axerriek. AIURRI



Allurralde Goiko baserrian atsedena hartu zuten axerriek. AIURRI



Intusain baserri inguruan kalejiran zihoaztela. Behean, Koskaran baserrian.



Sorabillan, auzotarrek batera, plazan egindako saioaren ondoren. AIURRI

# Mozorroa jantzi eta jaian murgiltzeko deialdia

Erraldoi eta buruhandiak, Kaldereroetako eta Puska biltzeko ordezkariak, musikariak eta beste hainbat eragile hedabideen aurrean elkarrekin agertu ziren, herrikideei datozen egunetako ospakizunetan parte hartzeko gonbitea luzatzeko



Agerraldi jendetsua egin zuten aurreko astean, Bastero kulturgunearan atarian. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Puska biltzea, kaldereroak eta inauteriak egur bereko ezpalak dira. Hiru hitzorduak bata bestearen atzetik datoz, eta hirurak ere aintzineko tradizioan oinarrituta daude. Zer esanik ez, hiruetan ere mozorroa ezinbesteko osagaia da. Aurtengo hitzorduak iragartzeko agerraldi jendetsua deitu zuten Basteron, aurreko astean. Urtez urte herrikideak festara hurbilduz doaz eta aurtengoan, adibidez, mozorro desfilean hogeitak konpartsa eta seirehun lagun parte hartzea espero dute. Datu bikaina da hori.

Agerraldi bateratura erraldoi eta buruhandien ordezkariak, musikariak, inauterizaleak, Udala ordezkariak eta haurrak hurbildu ziren. Guztiak ere inauterien atariko ilusio berezi horrekin. Adierazgarria izan zen agerraldiaren amaieran atera zuten argazki bateratua. Anitza eta koloretsua izan zen.

Esti Mujika Kultura zinegotziak aurtengo ospakizunen berri eman zuen: "Ziur gaude Andoaingo eta Euskal Herriko etxe gehienetan, honezkero, mozorro eta osagarriak prestatzen hasita daudela. Inauteriak iristearekin batera, kalera atera eta ondo pasatzeko asmoz gaude. Ohitura zaharra da gurean mozorro festa; dakizuenez, debekatuta izan zen gure herriko historiaren momenturik ilunenetako batean, baina azken hamarkadatan jaia berreskuratuz eta ohitura indartuz joan gara".

Segidan egitarauaren xehetasun guztiak eskaini zituen, eta amaitu aurretik "Gora Andoaingo inauteria!" oihukatu zuen.

**MOZORRO DESFILEAN  
20 KONPARTSA  
ETA 600 LAGUNEN  
PARTE HARTZEA  
ESPERO DUTE**

"Gora!", alboan zituenak berehala erantzun zioten.

## Desfilean izena emateko epea

Ostiral honetan amaituko da. Basteron eman behar da izena (Ordutegia: 10:30-13:00 / 16:30-19:30etara). Hamar partaidetik beherako konpartsek parte hartu ahal izango dute, eta diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute.

## Desfilea antolatzeko bilera

Otsailaren 5ean izango dela iragarri dute. Bertan desfilearen ordena zozketa bidez erabakiko dutela. Horrez gain, beste hainbat akordio adostuko dituzte. Bilera Urigainen izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita.

## Inauteriak amaituta, bi hitzordu gehiago

Balorazio bilera, otsailaren 19an. Eta argazki-lehiaketa, zeinean parte hartzeko azken eguna otsailaren 22a izango den.



Ezkerrean, Araolaza 2009ko Santakruzetan ezpata-dantza berreskuratu zuteneko.

## "Mozorrotik disfrazera: noruntz doaz gure neguko festak?"

Oier Araolazak adituak hitzaldia eskainiko du datorren otsailaren 7an Urigainen, 18:00etatik aurrera

## Xabier Lasa ANDOAIN

Elgoibarko dantzari, kazetari eta antropologoak Euskal Herriko neguko festak izango ditu hizpide, Urki dantza taldeak antolatutako hitzaldian.

Santu guztien egunetik (azaroaren 1a) Garizuma bitarte, Euskal Herrian egiten diren makina ospakizun eta festa aztergai izango ditu Araolazak: Santa Claus, Halloween, Olenzero eta Mari Domingi, Nikolas Txiki, Santa Ageda, Inauteriak...

Bere iritziz, festa guztiek ba antzeko ezaugarriak dituzte. Era berean, mozorrotzea eta disfrazatzea ondo bereizten dituen bi kontzeptu dira berarentzat.

Labur azalduta, disfrazatzen denak (pirata, india...) "ni" izaten jarrailu nahi du, jendearen miresmena bilatuz. Mozorrotzen denak, ordea, nortasuna galdu eta anonimatoan murgiltzen da.

Araolaza ospe handiko dantzaria izateaz gain, euskal dantzen inguruan informazio iturri aberasgarriena eskaintzen du dantzan.eus webgunearan bitartez. Euskal Herriko tradizio eta folkloreak arloetan sona handia duen ikerlaria da. Makina bat ideia eta hausnarketa berritzaile plazaratu ditu azken urteotan, maiz apurtzaile izan direnak. Besteak beste, Halloween euskal jaia dela dio berak; izan ere, kalabazak hustu, kandela sartu eta jendea beldurtzen ibiltzeko ohitura hori historikoki Euskal Herriko leku askotan ezagutu da. Zizurkilan, urrutira joan gabe. Bestalde, Mari Domingi Olenzeroren ondoan jartzea hanka sartzea dela deritzo. Iraganean, Euskal Herriko zenbait herrietan (Leitza...) Olenzerok genero markarik ez zeukan, eta orain ezarri egin zaio.



# Kaldereroen etorrera eta desfilea Andoainen

Kaleak inauteri giroz beteko dira hurrengo bi asteburuetan. Kaldereroen bi ospakizun egingo dituzte asteburu honetan, eta inauteriak hurrengoan

## OTSAILAK 2

### OSTIRALA

**15:00** Ondarreta ikastetxetik abiatuta, Kalderero txiki jaia. Gora Kaletxiki txarangak lagunduta.

## OTSAILAK 3

### LARUNBATA

**17:00** Kaldereroen konpartsaren irteera Kaletxikitik. Ibilbidea: Zaharren Egoitzara eta Goikoplazara. Kanpalekua ipini, harrera ekitaldia eta erreginen adierazpena udaletxeko balkoitik. Ondoren, kalejira Zumea plazaraino.

## OTSAILAK 7

### ASTEAZKENA

**18:00** "Neguko festak, Inauteriak dantzan" hitzaldia Urigainen. Hizlaria: Oier Araolaza.

## OTSAILAK 8

### OSTEGUNA

**15:00** Haurren ospakizunaren hasiera, ikastetxeetan.

**15:15** Ikasleen kalejira Bastero plazatik Zumea kalera eta handik Goikoplazara. Txarangak eta dultzaineroek lagunduta. Eguraldi txarrarekin, Ondarreta ikastetxeko jolastokian.

**16:15** Dantza jaialdia Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin, Ondarretan.

**17:15-20:00** Beldurrezko etxea Gazte lokalean.

**18:00** Maskara Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Urigainen.

**19:00** Pintxo pote musikala Goikoplazatik Kale Nagusira: Olagain txistulariak, Alberto Agirre Abesbatza, kantu kalejira eta udal Musika Eskolako ikasleak.

## OTSAILAK 9

### OSTIRALA

**17:15** Mozorro festa Gazte Lokalean. Askari berezia gazte kuadrila guztientzat. Mozorrotuta etorri!

**18:00** Udal Musika Eskolaren "Basetxean" emanaldia Basteron.

**18:00-19:30** Maskara Lehiaketaren erakusketa Urigainen.

## OTSAILAK 10

### LARUNBATA

**10:30-11:30** Maskara Lehiaketaren erakusketa Urigainen.

**11:30** Buruhandi eta erraldoien konpartsa.

**12:00** mozorroak nahiz konpartsak kalez kale.

**12:00-13:15** Soinuak Musika Eskolako kalejira. Eguraldi txarrarekin, Ondarretan.

**17:00-20:30** Inauteri desfilea Txitibar plazatik Goikoplazara.

**18:00-19:30** Maskara Lehiaketaren erakusketa Urigainen.

**23:00-03:00** Gazte jai disko festa Nafarroa plazan.

## OTSAILAK 11

### IGANDEA

**12:00** Mozorroak nahiz konpartsak kalez kale.

**17:30** Haur festa Goikoplazan: "Reziklator" ikuskizuna. Eguraldi txarrarekin, Ondarretan.

## Lehen hitzorduak



Kalderero txikien ospakizuna, ostiral honetan. AIURRI

**Ospakizun bikoitza** Ondarreta ikastetxeko txikienek ekingo diote Kaldereroen ospakizunari, kalejirarekin. Ibilbidea honakoa izango da: Kale Nagusia, Santa Krutz zubia (Zubiaurre Etxea) eta Ondarreta Ikastetxea.



Inauteria Gazte Lokalean, ostegunean eta ostiralean. AIURRI

**Beldurrezko etxea** Ostegun gizeneko arratsaldea emozioz eta beldurrez beterikoa izango da, Gazte Lokalean. Ospakizunak 17:15etatik 20:00ak arte iraungo du. Biharamunean, mozorro festa eta askaria antolatu dute Gazte Lokalean bertan.



Olagain txistulari taldekoak kalez kale ibiliko dira, ostegun gizenean. AIURRI

**Pintxo potea, musikaz lagunduta** Olagain txistulariak, Alberto Agirre Abesbatza, Kantu kalejirako kideak eta Udal Musika Eskolako ikasleak kalejiran ibiliko dira, Ostegun gizenean. Ez ohiko pintxo pote eguna izango da, musikak girotutakoa.



## Inauterietako argazki lehiaketa

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Andoaingo inauterietako argazki lehiaketak zalantzak sortzen dizkit. Ez lehiaketak berak. Ideia bikaina da, eutsi diezaiozun horri! Argazkiak saritzeko erabilitako irizpide sortari, ordea, ekarpena egin nahiko nioke. Har dezagun adibidetzat aurtengo egitarauaren portada, iazko argazki sariduna biltzen

duena. Saritzeko garaian, egileak darabilen teknika lehenetsi dutela argi dago. Lanketa ona duen argazkia da.

Nik, ordea, gabezia nabarmena ikusten diot irabazletzat aukeratu duten argazki horri: Inauteriaz ari garelarik, argazkiari arima falta zaiola iruditzen zait.

Inauteria kalea, festa, mozorroa, jendartea da. Urtean behin hain estuki lotzen gaituzten konbentzioekin hausteko ospakizuna.

Azken urteotan parte hartzea sustatzeko egiten den ahalegin berezi hori ez litzateke programaren azalean ere irudikatu behar? Jendartea desfilean, koadrila dibertigarri bat..., jaia den bezala hobeto bilduko lukeen argazkia, hitz gutxitan.

# Bosko Anitz txaranga, ezinbestekoa Urnietan

Salesiar ikastetxeko txarangaren jardunaldia egun osora zabaltzen da. Goizean prestaketa lanak, arratsaldean kalejira herrian zehar eta iluntzean mozorro desfilea eta jaia ikastetxean bertan. Egun bakarra izan arren, ospakizun handia da eurentzat



Bosko Anitz txaranga kideak, iazko mozorro desfilean, Idiazabal kalean ibili eta gero ikastetxeko bidean zihoazela. AIURRI

## Olatz Lasa URNIETA

Bosko Anitz aisialdi taldeko begiralea da Lidia Martin. Urteik urtera herritarren parte hartzea ugaritzen doala nabarmendu du. Otsailaren 10ean Idiazabal kaleko animatzaileetakoak izango dira, ikastetxeko ospakizunea igo aurretik.

## Urte askoan inauterietako parte zarete. Nola bizi duzu zuk inauteri jaia?

Bosko Anitz taldea hasi zen kalejira antolatzen. Txikitatik oso pozik hartzen dudana ospakizuna da, herrian zegoen festa bakarra baitzen. Hasieran, Saroben eta Plazido Muxikan egiten zen. Eta

azken urteotan Salesiar ikastetxean amaitu ohi dugu festa. Jende ugari etortzen da, hirurehun lagun inguru.

Kaleko ospakizuna, egun, herri osoaren festa bilakatu da. **Musikala izango da aurtengo gaia. Zuena sekretupean gordeko al dugu, larunbata arte?**

Iaz hasi ginen musikalaren proiektua lantzen, eta musikala bat egin genuen. Aurtengoan gai hori atera dela ikusita, iazko lanari buelta eman eta musikal berria egingo dugu. Zalan-tza ugari ekarri dizkigu, ez genuelako aurreko urteko ideia bera erabili nahi.

## Egun berezia da datorren asteko larunbatekoa. Azalduko al diguzu eguna nola joango den zuentzat?

Begiraleak goizeko 10:00ak aldera hurbilduko gara Salesiar ikastetxera, karrozari azken ukituak emateko eta gozokiak prestatzeko. Eguerdian begiraleok ikastetxean bertan elkarrekin bazkaltzeko aprobetxatzen dugu. Arratsaldeko 16:00tan San Juan plazara jaitsiko gara, eta 16:30ean herritarrekin bilduko gara. Bertan dantza egingo dugu, jendea hurbildu arte. 17:00ak aldera Idiazabal kalera jaitsiko gara, gainontzeko karrozekin elkartzeko. Herrian zehar kalejira egin eta gero, 18:00ak aldera Salesiar ikastetxera igoko gara bertako desfilean parte hartzera. Sari banaketa ekitaldia egingo dugu, ondoren, haur nahiz helduen mailakoa. Eta jaiari amaiera borobila emateko, txokolatada eta disko-festa gaueko 21:00ak arte.

## Zenbat begirale zarete? Eta ikastetxeko desfilean zenbat haurrek parte hartuko dute?

25 begirale inguru gara, eta horiei laguntzera etorri ohi zaigun jendea gehitu behar zaio. Denera 300 pertsona irtengo gara

## OTSAILAREN HAMARREAN KALEA GIROTUKO DUTE, IKASTETXEAREN JAIRA IGO AURRETIK

desfilean, haurrak eta helduak batuta.

## Urnietakoaz gain, beste herriren batera joaten al zara inauterietan gozatzeraz?

Ez. Urnietan inauteri giro handiegirik ez zegoelako hasi zen antolatzen festa, eta geroztik herrian geratu ohi gara. Urteik urtera herritarren parte hartzea handituz doa, gainera.

## Zalantzan dagoenari, mozorrotzeko nola konbentzituko zenioke?

Gaia musikala dela kontutan izanda, nire gomendioa honakoa da: musikal sinplea aukeratu, eta etxean dituzun gauzekin mozorrotu, konplexu handiegirik hartu gabe.

## Zein mezu zabalduko zenieke urnietarrei, parte har dezaten?

Festara batu daitezela. Eurria nahiz eguzkia izan, denon artean festa ederra egin dezagula.

## Makillaje tailerra

Inauteriak gainean ditugula, Urnietako Ludotekakoek ideia praktikoa izan dute. Aurpegia makillatzeko ikastaroa antolatu dute, datorren otsailaren 9rako. Ludotekan bertan izango da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Ikastaroan azala zaintzeko aholkuak eskainiko dituzte, besteak beste. Izena eman beharra dago aldeztu aurretik. Zehazki, datorren otsailaren 2ra bitarte. Informazio gehiagorako telefono zenbakia: 943 008 033.

**XAUXAR**  
TABERNA • URNIETA

Goza dezagun inauteriaz, herrian bertan!

Idiazabal 26, behea - URNIETA

**2KN**

KAFETEGI - OKINDEGIA

Maximo Yurramendi, 2-behea - URNIETA - 635 698 272

ONDO PASA INAUTERIETAN

**ITXASPE**

FRUTATEGIA,  
IZOZKIAK ETA GOZOKIAK

Zelaztegia, 2 • URNIETA  
TEL: 943 009 427

Gora Urnietako Inauteriak!!

**iturbe**  
SUKALDEA & ETXEA (1964)

Ondo pasa inauterietan

Igarategi Industrialdea 70,  
0 solairua, Urnieta.  
Bezeroen arreta-telefonoak:  
943 552 750 - 688 632 191  
www.mueblesiturbe.com

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

IKER MARTINEZ DE LAGOS EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO KIDEA

## Euskaraldia

*Euskal Herriko zazpi lurraldeetan, batera, herritarren aitzindarizatit, era guztietako erakundeen babesarekin, aldaketa zehatzak lortzera bideratutako ekimen praktikoa.*

Horrela laburbildu daiteke 2018an herriz herri antolatzen ari den Euskaraldia, duela bi hilabete Euskal Herri osoko hainbat eragile sozialek eta erakunde publikok aurkeztutako ekimena.

Bestela esanda, euskaltzale askoren erabaki pertsonal eta kolektibotik dator. Gutxiengo izatearen konplexuak alde batera utzi, eta euskaraz bizitzeko nahia beren bizitzan praktikara eramateko erabakia hartu dute milaka lagunek jadanik (Agurainen, Egian, Lizarran, Baionan, Arrigorriagan,...). Mugimendu herritarra izan da hau eta aurrerantzean ere horixe izango da Euskaraldia: herritarren eragiletzan eta aitzindaritzan oinarritutako ekimena.

Eta zein da erakundeen funtzioa guzti honetan? Babestea, herritarrek martxan jarri dugun dinamika honi babes neurriak gehitzea. Era guztietako erakundeak batu nahi izan ditugu Euskaraldira. Euskalgintzan ari garenon eta erakunde publikoen arteko aliantza argi bistaratu da, baina gizartean eragina duten gainontzeko entitate guztiak ere interpelatu nahi ditugu: erabilerarena ez da norbanakoen kontu hutsa, erakundeek espazio horiek babestu eta euskararen erabilera bultzatzeko testuinguruak sortu behar dituzte.

Eta, hau, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan batera. Aspaldiko urteetan gutxitan ikusi dugun zerbait da, lurralde guztietako euskaltzaleak eta erakundeak batera, norabide

berean, lanean. Herriz herri hedatzen joan diren ekimenek orain arteko mugak gainditzeko gaitasuna erakutsi dute. Euskal Herri osoan proposamen baten bueltan hainbat lagun gogoz lanean ikustea handia da!

Azaroaren 23an Euskaraldiaren aurkezpenean

edo Korrikan, Santiago zubian, egindako argazkiak ez dira irudi hutsak, euskalgintzari norabide berritua ematen dioten sakoneko mugimenduak dira, elkarlan eta konplizitate berrien bila egiten diren proposamenak. Herritarren nahiri galga jartzen dioten inertzia zaharrak apurtzeko momentua da. Euskaraldiaren bueltan ari diren herritar guztien indarrak aldaketa handia sortuko du, ez daukagu zalantzarik. Biba zuek!

## GUTUNA

## Erraustegiaren eta goi tentsioko linearen aurka

## ERRAUSTEGIAREN A.M.

Gutxi balira bezala Zubietako erraustegiak Buruntzaldeari egin dizkion kalteak, erraustegiari atxikia egin nahi duten 5 kilometroko goi-tentsioko linea berriak inguruko naturari eta herritarroi eragingo digu. Erraustegitik atera eta 5 kilometroan zehar, baso, larre eta nekazal lur artean joango da goi-tentsioko linea berria, Zubietan, Lasarte, Andoain eta Urnietako larretan barna.

40 metroko zabalera eraikiko diren 132 kw potentziako zutabeetatik atera nahi dute zaborrak errausteagatik sortuko den energia. Europako Parlamentuak berriki diru publikoz laguntzea debekatu duen jardura bera, hain zuzen.

Lasarteko EAJ-k eskatu zuen bere garaian erraustegiko energia doan emateko Lasarteko herritarrei. Erraustegiaren ondorioak hain gertu edukita, nolabaiteko konpentsazio moduan. Aldundiak noski, ukatu egin zuen proposamen hori: Zer ondorio klase? Dena ona eta txukuna da. Besteak beste, Klima Aldaketaren Aurkako Zentroa ere ondoan egingo digu.

Aurpegia behar da gero. Gipuzkoan, berotegi efektuko gasen bigarren isurtzaile nagusia izango den Zubietako erraustegiaren ondoan egin nahi dute klima aldaketa ikertzeko zentroa. Badute non ikertu, eta batez ere non saihestu karbono dioxidoa, nitrogeno oxidoak eta bestelako gas toxikoen

isurketa. Has daitezela erraustegitik bertatik.

Goi tentsioko linea tramitean dago, laster hasiko dituzte lurren desjabetzeak. Erraustegiaren obrak berriz martxan, korrika eta presaka dabilta agintaldi honetan amaitu nahian. Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak, Diputazioak, Jaurralitzak denek bat egin dute Buruntzaldeko herritarren osasunari kalte itzela egin diezaioketen erraustegia inposatzeko. Pankartak ere ez zaizkie gustatzen, herritarren protestak ez zaizkie gustatzen. Ba argi eta ozen esan nahi diegu: ez dugu atsedunik hartuko gelditu arte erraustegi toxikoa eta harekin batera eraiki nahi dituzten azpiegitura guztiak, besteak beste, goi tentsioko linea.

## POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ  
ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA  
Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Hizuntza Berlindusmerko Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: BARKESLEAK: AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

## PROTAGONISTA

# “Kaldereroen ospakizunera hurbil daitezela herrikideak”

UNAI ORMAETXEA KALDEREROETAKO ERREGINA, ION BELOKIREKIN BATERA

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Azken urtetan Unai Ormaetxea eta Ion Beloki dira Andoaingo kaldereroetako erreginak. Aurtengoan ere ez dute hutsik egingo. Jada prestaketa lanetan ari da. **Zein da Ion Beloki eta bien zeregina, Kaldereroen konpartsan?**

Andoainen antolatzen den festarekin bat egitea da eta horretarako, desfilean zehar, Hungariako bi erreginen rolak hartzen ditugu. Udaletxeko bakoitik, ongiatorria ematen diogu kalderero jaiari, antzerki eta bertso batzuren bidez. Eta ondoren, Andoaingo herria karroza batean zeharkatzen dugu, txarangak lagunduta eta jende andana atzetik dugula. Hitz gutxitan esanda, ospakizunari umorea jartzea da gure zeregina.

**Zer erregistro antzezteak eskatzen dizue pertsonaiak?**

Komediatik, beste edozein generotik baino gertuago; inori minik egingo ez dion



Unai Ormaetxea eta Ion Beloki, Kaldereroetako protagonistak. AIURRI

umore zuria erabiliko dugu antzezpenean.

**Udaletxeko bakoiko diskurtsoan herriko kontuak hizpide dituzue...**

Momentu oso berezia izaten da, bati ez zaio udaletxeko bakoitik herriari hizketan

aritzea egunero egokitzen. Antzerkiari pisu gehiago ematen saiatu gara, baina bertsoek ere badute bere lekua. Euskararen aldeko aldarrikapena egitea ere ez dugu ahazten.

**Pentsatuta daukazue zer esan aurtengoan?**

Bai, badarabilgu ideia bat buruan. Orain esango banu, momentuko grazia osoa zapuztuko nuke. Bakar-bakarrik aurreratu dezaket, bakoian, Hungariako erreginek ez ezik, azken bi urtetan oso entzuna izaten ari den pertsonaia batek protagonismoa hartuko duela.

**Nola animatuko zenituzke andoaindarrak kalderero jaiari parte hartzera?**

Andoainen geroz eta indar handiagoa hartzen ari dela esango nuke. Jende orori hurbiltzeko gonbitea luzatuko nioke, bereziki etxeko txikienei. Inor baztertzan ez duen ekitaldia da, andoaindar guztien parte-hartzea bultzatzen duena: izan kalderero edo musikari, izan erregin edo ikusle...

**Une honetan ba al daukazu ikuskizun berezirik esku artean, bakarrik edo antzezanik?**

Egia esan nahiko alboratuta ditut nire rol horiek, beste lan eta ikasketa batzuekin denbora askorik ez dudalako. Nolanahi ere, era honetako jaiekin oraindik barruan daramadan pertsonaia hori irrteten uzten didate, eta ondoan Ion Beloki laguna baldin badaukat, zer gehiago eskatu?

## HAU ERE BADUGU!

**Bertsotan lagunartean, Eula sagardotegian**



ENBA sindikatuak urteko batzarra egin eta gero, Eulan egin zuen bazkaria. Hura girotzeko Aitor Mendiluze eta Unai Agirre bertsolariak bertan izan ziren. Bertso gutxi batzuk ikusgai daude ENBAko Facebook orrialdean.

Mendiluzek Agirrei, kupelen ondoan: *"Tazko aldean piskat hobe, hori zen zure oharra. Aho sapaia daukazu ona, edo memoria txarra"*. Eta Agirrek erantzuna: *"Aitor laguna hasi ezker, ibili ohi da gustora, ondokoari galantak botaz, asko egin gabe dudu. Txikitatikan ezagutzen dut, ez dit gehiegi ardura, nik memoria galtzen det baino hemendik hiru ordura"*.

**Jokin Lizeaga, protagonista Twitterren**



Twitter sare sozialean Andoni Urbistondo kazetariak adina irismen duen urnietar gutxi izango da. Aurreko astean honakoa idatzi zuen, "Erreportaia irakurtzea aholkatzen dizuet, ez baita ohikoa kirolari bat hainbeste biluztea. Aiurrin topatuko duzue erreportai osoa". Jokin Lizeagari buruzkoaz ari zen, eta txioak oihartzun zabala izan zuen.

Biharamunean Aiurrik zabaldu zuen txioak ere hedapen zabala izan zuen. Erreferentziako kirolaria baita urnietarra, Euskal Herri osoan. Zorion mezuen artean, @iuribetxebarria-k zera idatzi zuen: *"Earra elkarriketia. Sare sozial ta hainbeste kristo dauzen garai honetan, betiko moduen hankak lurrien"*.

## ITURRI ONETIK

## Dr. Huitziko jolas parkea

Andoaingo Dr. Huitzi kaletik Makaldegira doan bidean jolas parkea egon da, urte luzez. Zahartuz joan zen eta, segurtasun arrazoiak tarteko, kentzea erabaki zuten. Denbora aurrera doa eta porlanezko plazatxo batetik hutsik geratuko dela dirudien arren, ez da horrela izango. Haur parkea eraberritzeko egitasmoa martxan da, proiektu fasean dago. Eta dirudienez oso parke erakargarria izango da. Iraganeko jolasgunearen eremuak eta ondoko zelaiak bat egingo dute, jolas eta tresneria ezberdinen bitartez.

## GORA ETA BEHERA



## Behar handiko zerbitzu publiko berria

Iragarrita zegoen, eta instalakuntza egun hauetan egiten ari dira. WC zerbitzu publikoa ipini dute Makaldegian, joan etorri handiko gunean. Ibilgailua utzi dutenentzat, merkatu plazan daudenentzat edo oinez joan-etorriari doazenentzat eskuragarri izango da. Zumea plazakoak eta Goikoplaza ondoakoak bezala, Makaldegikoak ere erabilgarritasuna izango du.



Alejandro Kalonje auzunean egin zuten bigarren auzo bilera, asteartean. **AJURRI**

# Errefusa biltzeko sistema berria

Otsailan hasi eta froga modura sei hilabatez luzatuko da errefusa biltzeko sistema berria. Herritarrek auzo bileretan beharrezkotzat jo dute aldaketa, baina zenbait ekarpen egin dizkie Udalari pilotuaren esperientzia erosoagoa izan dadin

## Erredakzioa ANDOAIN

Otsailaren 12tik aurrera, edukiontzi berdea kendu eta froga modura errefusa biltzeko edukiontzi grisa ipiniko dute Sorabilla, Olagain eta Alejandro Kalonge auzoetan. Txipa eramango duen edukiontzia izango da, organikoaren tankerakoa, eta txartel magnetikoarekin ireki beharko da. Joan zen astean egitasmo berria azaltzeari ekin zion Andoaingo Udalak, auzo bileren bitartez. Lehenengoa Sorabillan izan zen. Ana Carrere alkatearekin batera, azalpenak ematen aritu ziren Ramon Varela Ingumen teknikaria eta Jon Zulueta zinegotzia.

Egun, %42 inguru birziklatzen da Andoainen. Europar Batasunak adierazitakoaren arabera, 2020. urterako gutxienez hondakinen %50 birziklatu beharko da Europako herrialde bako-

Lehen bilera Sorabillako auzo elkartearen egoitzan egin zuten. **AJURRI**

## Olagainen hirugarren bilera

Sorabillan eta Alejandro Kalonjen egindako bileren ostean, ostegun honetan egingo dute hirugarren auzo bilera. Olagaingo musika gelan izango da, arratsaldeko 18:30ean hasita.

tzean. Ana Carrere alkateak azpimarratu duenez, "herritar gisa ingurumenarekiko arduratsu jokatu behar dugu, eta zoritxarrez legeak behartu behar gaitu arduraz jokatzeko".

### Errefusa, froga modura, astean lau aldiz erabiltzeko aukera

Astean 4 aldiz erabil ahal izango da edukiontzi berria, txartelean horrela programatu baitago. Salbuespen kasutzat hartuko dira fardelak erabiltzen dituzten etxeak; haur txikiak izan edota egoera berezian direnek eskaera zehatza egin beharko dute. Kasu horietan astean zazpi egunez erabili ahal izango dute. Orokorrean, errefusa gutxien sortzen den zaborra izanik, lau egun nahikoa dela adierazi zien Carrerek auzotarrei.

### Herritarren ekarpena Sorabillako auzo bileran

Sorabillan egin zuten lehen bileran, parte hartzaileek aldaketa beharrezkoa zela adierazi zuten, baina zenbait proposamen luzatu zizkieten Udal ordezkariari. Zehazki, edukiontzia irekitzeko txartelari dagokionez. Esaterako, etxe bakoitzean bi txartel edukitzea, edota elkarteek euren txartela edukitzea.

Bi ideiak teknikoki egin daitezkeela adierazi zuen Ramon Varela Ingurumen teknikariak. Hori bai, bigarrena eskuratzeko euro bat ordaintzearen ideia plazaratu zuen, eskatu beharreko kopuru berriak aurreikusitakoa bikoiztuko lukeelako.

### Sortzaile berezien kasuan, biltzeko sistema berezia

Materia organiko ugari sortzen dituzten taberna, jatetxe, enpresa, edota merkataritza guneetan atez ateko biltzetaren aukera eskaini zitzaizaien iaz. Organikoaren edukiontzia atarian utzi, eta ondoren garbitzailea zaborra biltzera joaten da astean hirutan: astelehena, asteazkena eta ostirala. Jon Zulueta zinegotziak azaldu zuenez, merkatariei eroso suertatu zaie materia organikoa jasotzeko sistema hori. Harrera ona eduki du.

## EDUKIONTZI GRISA IPINIKO DUTE SORABILLA, OLAGAIN ETA ALEJANDRO KALONGE AUZOETAN

Edukiontzi grisa. **AJURRI**

## Otsailaren 12ko astean, banaketa

Otsailarako dena prest izateko, aurreko egunetan –otsailaren 12tik 16rako tartean– organikoa biltzeko edukiontzi txikiak banatuko dituzte Sorabilla, Olagain eta Alejandro Kalonge auzoetan.

Etxeko atarietan utziko dituzte, poltsa konpostagarriekin batera. Hori gertatzen ez den kasuetan, bizilagunak Udaletxera deitu beharko du, eta kuboa jaso. Konposta egiten duten etxeetan ere edukiontzia banatuko dituzte. Edukiontziak irekitzeko txartela ez duten herritarren kasuan, postaz bidaliko zaie etxera.

Froga modura erabiliko dituzten edukiontzi gris bakoitzaren kostua 1.000 eurokoa da, 700 edukiontzia eta 300 txip sistemarena. Denera 3 edukiontzi erosi dituzte. Bizilagunek jasoko duten txartelarekin Andoaingo edukiontzi guztiak ireki ahal izango dituzte.

Sei hilabateko iraupena izango du frogak, eta amaieran auzotar bakoitzak inkesta bete beharko du. Emaizta horren arabera hurrengo urratsak zehaztuko dira.

Martxoan gida banatuko dute andoaindar guztien etxeetara, zabor bakoitza zein edukiontzira bota behar den zehazten duena.





Parte hartze prozesu bat baino gehiago egin dira, agintaldi honetan. AIURRI

## Parte hartze prozesua martxan da

Herritarren zalantzak argitze aldera, informazio karpak ipiniko dituzte asteburu honetan, herriko leku ezberdinetan. Zalantzak argitzeaz gain, informazio karpan proposamenak aurkezteko aukera izango da

### Erredakzioa URNIETA

2018ko aurrekontutik 125.000 euro parte hartze prozesura bideratu ditu Urnietako Udalak. Modu horretan, herritarrek erabaki ahal izango dute kopuru hori zertan inbertitu nahi duten; eta asmo hori praktikan jartzeko garaia heldu da.

Urtarrilaren 16an egin zuten aurkezpen publikoa, prozesuaren xehetasun guztiak azaltzeko. Agerraldia egin bezala, herritarrek informazio liburuxka jaso dute etxean.

Otsailaren 11 bitarte aurkez ditzake proposamenak, 16 urte edo gehiago dituen herritar orok. Honako lekuetan aurkez daitezke proposamenak: Lekaio, Kiroldegia, Denda Berri, Anbulatorioa, Egape ikastola, Azkorte, Presentacion de Maria Ikastetxea eta Salesiar ikastetxea. Baita baliabide teknologikoak erabiliz ere. Oraingo honetan Udalaren urnieta.eus webgunearen eta Urnietako APP aplikazioaren bidez.

Proiektuak onartuak izateko sei baldintza bete behar dituzte. Batetik, 16 urte edo gehiagoko herritarren proposamena izatea; bigarrenik, Udal-eskumenekoa izatea, beti ere, obrak, hirigintza eta mantentze lanei loturikoa; hirugarrenik, ekonomia edota teknika aldetik bideragarri izatea, 25.000 euroko kostu ez gainditzea; laugarrenik, iraunkor-

tasun ekonomiko eta finantzariora bermatza; bosgarrenik, urnietarren interesa norberaren interesaren gainera jartzea, eta azkenik, udalerriko auzoen arteko oreka bermatzea.

Proposamenak bidaltzeko epea amaitzean, udal teknikariek proposamen guztiak aztertu eta ondoren erabakia hartu eta herritarrei jakinaraziko diete.

### Informazio karpa, asteburuan

Ostiralean eta larunbatean ipiniko dute, herrian zehar, informazio karpa ibiltaria. Parte hartze prozesuaren inguruan herritarren zalantzak argitzea izango da xede nagusia. Ordu eta leku hauetan ipiniko dute informazio karpa:

#### Otsailak 2, ostirala:

- 10:00-14:30 Etxeberri plaza
- 17:00-20:00 Guria tabernaren inguruan.

#### Otsailak 3, larunbata:

- 10:00-14:00 Kiroldegiaren kanpoaldean.

#### Informazio telematikoa:

- [www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus).
- APP urnieta, smartphoneetarako.

## “Sorginaztien festa” haur antzerkia, larunbat honetan

Larunbat honetan Lekaion, arratsaldeko 18:00etan hasita eta Jose Mari Berasategiren zuzendaritzapean

Egape ikastolako antzerkilari txikiak Lekaion ikuskizuna eskainiko dute, larunbatean. Joxe Mari Berasategik zuzenduta, adin ezberdinetako hogeita hamar gaztetxok osatuko dute “Sorginaztien festa” emanaldia. Berasategik adierazi duenez, iaz antzeztu zuten *Etxola Majikoa* ikuskizun arrakastatsuen il-dotik joango da oraingoa. Pertsonaia ugari agertuko dira oholtzan: Aztiak, sorginak, baserritarak...

Istorio eta abentura txikiz osatuko da emankizuna izango da; batzuk euskal mitologian oinarrituko dira, beste batzuk aldiz Harry Potterren estilora hurbilduko dira.

### Gogotsu saio berrirako

Antzerkilari gazteak irrikitan daude, asteburuko ikuskizunari begira. Berasategik berak

Aiurriri aitortu dionez: “Asteroko entseguetan gogor aritu dira, eta orain iritsi zaie ikaskideen, gurasoen eta orohar Urnietako antzerkizaleen aurrean dakitena erakusteko unea”. Larunbateko emanaldiaren aurretik, bezperan, ikaskideentzat arituko dira Egapeko ikastolan bertan.

### Egitasmo berriak

Datorren astean ikasturte amaierako ikuskizunaren prestaketari ekingo diote. *Euskal Frozen* deituko diote, eta Lekaion eta Saroben antzezteko asmoa dute.

**ANTZERKILARI  
GAZTEAK  
IRRIKITAN DAUDE,  
ASTEBURUKO  
IKUSKIZUNARI BEGIRA**



**Taldera urnietar gehiago biltzeko deialdia egingo dute**



**Datorren Aiurri astekarian:  
Urnietako bake eta bizikidetzeta taldea**

# Olatz Odriozola onenen pare

**TXIRRINDULARITZA** Kalbario handia pasa zuen 2017an: Bost hilabetez geldirik eduki duen motor istripua, entrenatzeko ezintasuna, langabezia..., baina argia ikusi du, lana beltz eginda. Saria lortu du, gainera: Munduko ziklo-kros txapelketan parte hartzea.

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Andoingo Karrika auzoa. Asategun bateko ilunabarra. Xirimiria ari du, etengabe ia, azken bi asteetan bezala. Amorratzeko moduko eguraldia, askorentzat. Olatz Odriozola, ordea, gustura dago (Urnieta, 34 urte): "Euria ari du, baina hotzik ez dago, eta hori ziklo-krosleriontzat altxor handia da". Hitzontzi petoa da Olatz. Itxura du hitzak ez zaizkiola ahoan kabitzen, hitz egiteko mingaina hara eta hona mugitzeko denbora falta zaiola. Hainbeste gauza dituela kontatzeko, azkar kontatu nahi dituela, ahazteko beldurrez edo. Ziklo-krosleriak azken sei hilabeteetan bizi izan duenak elkarrizketa bat ez, eleberri bat idazteko ematen duelako. Gauza asko. Eta asko txarrak, mingarriak. Onak apur batzuk, baino txarren ondoren, eta horrek beti aho zapore gozoagoa uzten du. Olatz Odriozolak Munduko Ziklo-kros txapelketa bat korrituko du lehen aldiz bere bizitzan, 34 urterekin. Valkenburgen da hitzordua, Herbeeretan, etzi, larunbatez. Ez zuen espero Espainiako hautzailearen deirik. Baina bertan izango da.

Espero, gauza gutxi espero zuen Olatzek, erietxeko ohean etzanda zegoenean. Irautea, akaso: "Oinazetik gabe bizitzea", ez aspaldi. "Edo entrenatu ahal izatea. Ordubete bada ere", orain hilabete eskas. Gaur barre egiten du. Osatu da. Itzuli delako. Eta itzuli delako osatu, bizi. Uztailearen 7a aipatzen badugu, euskal herritar gehienok San Fermin jaiekin gogoratuko gara. Olatz, aldiz, bere egunerokoa goitik behera aldatu zuen motor istripuarekin: "Sorabillako irteeran izan zen, N1ean, Tolosarantz. Geldituta zegoen auto bat

zegoen bazterrean, eta ezin izan nuen saihestu. Aurpegiko ezker-raldea erre nuen, eta eskuin besoan erradio hezurra hautsi, eskumuturraren aldean. Orkatilan ere erredura bat izan nuen, eta bata eta bestearen artean, bost hilabete eman ditut osatzeko".

Besoko hezur hausdura itsusia izan zen, hezurra nahiko txikituta zeukan. Bi iltze jarri zizkioten, baina haustura ez zen egonkortzen, eta beste ebakuntza bat egin zioten Policlinican, osatze prozesua Mutua edo aseguru etxeak bereganatu ostean. "Txapa antzeko bat jarri didate, eta hori betirako edukiko dut besoan". Okerragoa izan zen orkatilako zauria: "Bigarren graduako erredura bat jasan nuen. Erredura sendatzen aritu ziren medikuak bi egunez behin, garbiketa saio nahiko bortitzekin". Hilabete pare bat pasa ziren, berriro hanka lurrean jarri zenerako.

Prozesu horretan, beti izan zuen buruan osatzea nola azkartu: "Errehabilitazio lanak egiten hasia nintzen besoarekin, gauza txikiak jasotzen, ur botilak eta antzekoak. Hilabetera bizikleta bizkarrean hartzera joan eta ezi, ordurako gimnasioan pesak egiten ari banintzen ere". Altxa zuen behin, eta bitan, hiru aldiz...". Jasoaldi bakoitza egiteak zenbat sufrimendu eragiten zidan nik bakarrik dakit, baina era berean, sekulako indarra ematen zidan gogorrako saiatzeko".

**ABENDUAREN ZAZPIAN ALTA EMAN ETA BIHARAMUNEAN AMETZAGAKO IRTEERAN ZEGOEN**

Halako batean, orkatilako zauria ez zela ixten jabetu zen Olatz: "Neukan ehuna ez zen birsortzen, hezurra ere bistan zegoen, eta azal-mentua edo injertoa egin behar izan zidan zirujau plastiakoak". Irailaren 8a zen.

**Burugogorra eta lehiakorra**

"Hankeko lesioa oso gogorra izan zen niretzat", dio, "oso pertsona aktiboa naizelako, eta ezin nuelako ezer egin". Etxekoek berarekin izan duten meritua eskertzen du, "ni entretenitzen izan duten pazientziarekin". Gurpildun aulki bat lortu zuten, aitonaarena, eta oina jartzeko halako egur bat jarri, etxetik atera ahal izateko: "Paseotxo bat emateko, behintzat!". Egun guztia lana eta entrenamenduekin bete-betea izatetik, egun guztia etxean egon behar izatera pasa zen Olatz. Urria hasieran makuluekin hasi zen ibiltzen, etxean, eta etxe atarian ordu erditxoko bueltak ematen. "Normal ibili noiz? Azaroan. Kontutan eduki kanpotik 30 puntuko zauria neukala, eta horrek ere bere denbora behar du. Puntuak eta grapak kendu zizkidatenean arrabolan ibiltzen hasi nintzen, orkatila indartu eta zirkulazioa hobetzeko".

Abenduaren 7an eman zioten alta. 5 hilabete luze, ordu eta egun asko geldirik, "eta txintxotxintxo" medikuen aginduak zorrotz betetzen. Kirolari izateak, sufritzen jakiteak asko lagundu dio egoera ondo eramaten. Eta ausart izaten. 7an alta jaso, eta egun bat geroago, Ametzagako proba korritu zuen. Eta bi egun geroago, Igorren. Batere entrenatu gabe! "Banekien margen handirik ez neukala, baina nire buruari erakutsi nahi nion Ametzaga eta Igorreko lasterketak



Odriozola Munduko ziklo-kros txapelketan arituko da, etzi, Herbeeretako Valkenburg hirian. AJURRI

bukatze gai nintzela. Ametzaga oso atzean ikusi nintzen, erreakzionatu beharrean, baina eguraldi txarrak, elurak, hotzak, sufritzen jakiteak, asko lagundu zidan 8. postuan helmugaratzen (Espainiako bosgarrena)".

Bukatze hutsa sekulako lorpene izan zen Olatzentzat, eta berriro ziklo-krosleri sentitze horrek, ilusioak, sekulako bultzada eman zion. Bi egun geroago Igorren korritu zuen. "Askok gustatzen zaidan zirkuitua da, baina lokazti latza zegoen. Korrika asko egin behar da, bizikleta bizkarrean eman. Lasterketa erditik aurrera hanka zintzilik bezala neramala jabetu nintzen, eta besoak ere oso justu! Gogoan dut helmugatik pasa eta bi itzuli falta zirela ikusi nuela kartelean. Nire buruari esan nion: 'nola demontre egin behar dituzu bi itzuli gehiago, porru eginda zoaz eta?' Bada,

**"HANKEKO LESIOA GOGORRA IZAN ZEN, PERTSONA AKTIBOA NAIZELAKO. EZIN NUEN EZER EGIN"**

bukatu nuen!". Hori bai, mugamagan, hondoia jota". 40 minutu pasatxokoak izaten dira emakumeen probak: "Berez aise bukatu beharrekoak. Niri, normalean, motzak egiten zaizkit", dio urnietarrak. "Gorputza, ordea, alpertu egiten da urte erdian, egurra ematen ez badiozu, eta egurra ematen hastean, kexatu egiten da".

Pixkanaka hasi zen gorputza fintzen, buruan urtarrilaren 13an Legazpin jokatu zen Espainiako Txapelketa buruan zuela. Urrian, Villarcayo eta Medina de Pomar-en (Burgos), bi lasterketa korritzen dira. Hara joan zen gurasoekin Olatz, "gurpildun aulki eta guzti, eta han, Legazpiko lasterketako antolatzaileak, Ormazabalek, Espainiako txapelketa Legazpin jokatu zela esan zidan, eta ea ordurako ondo jartzen nintzen. Hori akuilu ikaragarria izan zen niretzat, eronka jarri nion nire buruari: 'hor egongo naiz, eta ondo gainera', pentsatu nuen niretzat".

Baita bete ere, hirugarren sailkatu baitzen. Podiuma ez zen halako ezustekoa izan Olatzentzat, "datuak gorde zalea naizelako, eta hilabete horretan



egin nuen progresioa ona zelako. Valentzia (abenduak 14), Euskadiko Txapelketa Izarran (abendu bukaeran) eta Espainiakoa Legazpin, hiru lasterke-ta horiek korritu nituen, eta banekien koskak igotzen ari nintzela egunegun. Legazpin Aida Nuño txapeldunak bi minutu eta erdiko aldean kendu zion, baina ordura arte 5 edo 6 minutuko atzerapena pilatzen zuen.

#### **Valkenburg, espero ez zuen saria**

Progresio horrek espero ez zuen saria eman zion: Munduko Ziklokros txapelketa korritzeko aukera, lehen aldiz: "Aurten lesioak progresio hori ahalbiderratu du, eta goia Valkenburg-en jotzea espero dut. Aida Nuño eta Lucia Gonzalez selekzio kideek Legazpiko txapelketan goia jotzeko plangintza egin zuten, eta nik, aldiz, ez". Orain arte zergatik ez dute mundialera eramán Olatz? "Pascual Momparler hautatzaileak profesionaltasuna asko baloratu izan duelako. Alegia, dedikazio osoa eskaintzen dion kirolaria du gustuko, eta profesionala ez

naizenez, ez nau Munduko txapelketako deialdietan sartu. Ametzagan erakutsi nuen adorea baloratu zuela esan zidan, deitu zidanean, alta eman eta biharamunean korritzea ez dela erraza, eta Legazpiko lasterke-tan ere lan ona egin nuela".

Eta Valkenburg, Herbeertan zer? "Presiorik ez dut, hainbeste denbora lesionatuta egon eta gero, garrantzitsuena ondo osatzea delako. Disfrutatu, besterik ez", dio, umiltasunez. Desio bakarra du: zapora onarekin bukatzea, Valkenburgeko proba korritu eta gero atsedean hartzeko. Ondoren, mendi bizikletako denboraldiari kosk egiteko.

Zein erronka du Valkenburg? "Badakit ez dudala irabaziko, eta badakit ez naizela hamar onenen artean sailkatu-

**"AZKENEKO MUNDUKO TXAPELKETA IZAN LITEKE. ESPERANTZA GALDUTA NEUKAN, ETA BEGIRA!"**

ko. Daukaten guztia eman eta gustura bukatuko banu, konforme. 10.-a edo 50.-a izan".

Espainiako selekzioko lehena izatea, posible ikusten al du? "Gai ikusten naiz. Aida Nuño gaitzeta zaila da, baina Lucia Gonzalez mendera dezaket. Top 25 kristoren postu ona da. Azkeneko Munduko txapelketa izan liteke...Esperantza galduta neukan, eta begira! Bizikletan jarraituko dudalakoan nago, baina gaur gaurkoa, eta bihar biharkoa. Istripuak egunean eguneko bizitzen erakutsi dit".

Ez dute sosik jasoko Munduko txapelketa korritzeagatik, "baina hegazkinean goaz, behintzat. Atzerrira joaten garenean, normalean 14 ordu egiten ditugu furgonetan". Mekaniko eta asistentzia propioa emateko aukera dute, "anoa postuan zuk konfiantza duzun norbait egotea garrantzitsua delako, keinu batekin elkar ulertzen garelako".

#### **Profesionala bai, "baina ez soldatagatik"**

Kirola betidanik asko gustatu izan zaion neska bat bezala aurkezten du bere burua Olatz Odriozolak. Bizikletan hasi zen,



Karrikan bizi da kirolari urnietarra. AIURRI

## **Abuztuan hasi, otsailean bukatu**

Ziklo krosariak abuztuan hasten dira lanean. Lasai, baino saio luzeak egiten, 3-4 ordukoak. Urria hasieran, intentsitatea lantzen dute: "serieak, irteeraren bat, mendateak, pultsua igo, gorputza ohitzeko". Karrerak hastean, entrenamendu laburrak, baina gogorragoak izaten dira. Gimnasioan ere orduak egiten dituzte, "beso, bizkar eta oinetan giharrak sendotzeko. Ziklo-krosean asko sufritzen dute, eta landu egin behar dira".

Teknika ikasi egiten dela dio. Bizikletak balantza bai edo bai egiten du, eutsi egin behar diozu. "Atsedean egunetarako-eta, badugu zelai zatia Andoainen, eta han aritzen gara, bihurguneak nola hartu, posizioa landu..., harea bada pisua atzera bota behar dela, eta lokatza bada aurrera. Hori praktikatu egin behar da: hesiak gainditu, bizikleta besoetan hartu...".

Bederatzi urte daramatza, dagoeneko, ziklo-kros jardunean. Txiripaz sartu zela dio: "Ziklo-krosak ona du egun batean 40-45 minutuko proba korritu, eta biharamunean beste bat korri dezakezula, topera joanda. Mendi bizikleta neketsuagoa da, ezin dira bi proba korritu bi egunetan jarraian. Ziko-krosean lokatzak halako errespetua eragiten du, baina engantxatu ere bai. Jendeak pentsatzen du erraza dela mina hartzea lokatzetan, baina ez da hala. Gainera erorketak zoru gogorrean izaten dira, zuhaitzen bat edo hesiren bat tarteko. Lokatzetan ez".

20 urterekin, bikotea txirrindularia delako. Orain arte lanean eta bizikletan aritu izan da, baina orain langabezian dago, eta hobexego moldatzen da. "Lanak nekea eragiten du, eta entrenamenduekin, neke hori ez da desagertzen. Langabeziak denbora ematen dizu, baina ezin da luze iraungo duen egoera bat izan".

Olatzek garbi du berea afizioa dela, ez ofizioa: "Dirua galtzen dudana afizioa da. Baina betetzen nauen bitartean, aurrera. Lan saioak laburrak dira, neguan

**"JARRAITUKO DUDALAKOAN NAGO. ISTRIPUAK EGUNEAN EGUNEKOA BIZITZEN ERAKUTSI DIT"**

normalean ez gara errepidera ateratzen, saio esplosiboren bat egin behar ez bada. Egunean ordu eta erdi, edo bi ordu eskaini izan dizkiot, asteburuan gehiago. Ez dauka errepideko profesionalen lan saioekin zerikusirik". Ziklo-krosean hobe omen da ordubeteko lauzpabost lan saio on egin, kalitatezkoak, luze kaskar bat baino. "Gutxi eta ondo, asko eta gaizki baino", Olatzen laburpena.

Profesional sentitzen da, baina ez ziklo-krosa bizibide delako, "ordu asko eskaintzen dizkiotelako baizik". Euskal Herrian garbi esan behar zaio hasten den gazteari, "ez duela ogirik irabaziko. Begira Felipe Orts: Espainiko onena da, alde handiarekin, baina atzerrian maila ikaragarria dago. Orts ez da ziklo-krosari esker bizi".

# Jarduera fisikoak adin mugarik ez du

**IBILALDI NEURTUAK** "Ibili Andoain" jarduera fisikoa maiztasunez egiteko ekimen berritzailea da. Adinekoei begira, herrigunean lau ibilbide ezberdin zehaztu dituzte. Lehen zeharkaldia datorren otsailaren 21ean egingo dute, Goikoplazatik abiatuta



"Ibili Andoain" egitasmoa otsailean abiatuko da, iazko Agenda 21 ekimenean aztergai izan eta gero. AIURRI

## Erredakzioa ANDOAIN

Otsailaren 21ean hasita, adinekoei begira, ibilaldi neurtuak egingo dituzte Andoainen. Horretarako herrigunean zehar lau ibilbide seinalizatu dira. Bi ertainak, eta beste biak luzeak. Egitasmo berria iragartzeko 65 urtetik gorako herritarrek gutun bana jasoko dute laster. Egitasmoaren informazio zehatza jasotzeaz gain, ibilbideak egiteko egitaraua jasoko dute. Izan ere, sustatzaileek adinekoen artean jarduera fisikoa sustatu nahi dute. Nagiak alde batera uztearekin batera, sozia-

lizatzeko modu aproposa dela deritzote: "Zure adinekoekin konpartitzeko tarte bat edukiko duzu eta seguru lagun berriak egingo dituzula".

Otsailean hasi eta maiatza bitarte, asteazkenero lau ibilbideetako bat osatuko dute. Hitzordua beti berbera izango da: Goizeko 10:45etan Goikoplazan. Txandaka, Sorabilla aldera, Leizotz aldera edota Bazkardo aldera seinalizatu dituzten ibilbideetan barrena ibiliko dira. Laburrena Goikoplaza-Nafarroa plaza ingurukoa izango da. Han-

txe, gainera, gimnasia aritzeko makinak ipiniko dituzte. Osasun arloko aditu guztiek diotenez, ibiltzea osasuntsua da. Arrazoiak, ugari dira: arteria-tentsioa jaitzeko baliagarria da, eta baita bihotza indartzeko ere. Ariketa egiteak, gainera, kolesterola jaisten eta odolean azukrea murrizten laguntzen du.

## Hitzaldia otsailaren 19an

Ibilalden atariko modura, "Eroraketak ekiditeko tailerra" antolatuko dute Basteron. Hilaren 19an izango da, 17:00etan hasita.

## Denboraldi emankorra

### ESKUBALOA

Urnietako kadete mailako mutilek, urtarrilaren 21ean lortutako garaipenarekin, Gipuzkoako Txapelketan hirugarren postua ziurtatu zuten. Denboraldiaren lehen zatia, beraz, emankorra izaten ari da. Ligaska amaitzeko Bera Bera taldearen zelaian 32-41 irabazi zuten. Hurrengo asteburuan lehiaketa berriari ekingo diote.



UKE



Mikel Iturria Euskadi Basque Country Murias taldeko txirrindularia. @PHOTOGOMEZSPORT

## Denboraldiko "lehen garaipena" Mikel Iturriarentzat

**TXIRRINDULARITZA** Marsellan debuta egin zuen urnietarrak, lesio larria gaindituta. Une berezia izan zen

### Erredakzioa URNIETA

"Denboraldiko lehen garaipena lortuta. Hilabete batzuk atzera egin ezker, zail ikusten nuen bihar GP La Marseillaiseko irteeran egotea. Eskerrak eman hemen egoten lagundu didaten guztiei! Ea aurtengoa denboraldi hobea den!", mezu metaforiko hori zabaldu zuen urnietarrak denboraldiko lehen lasterketaren atarian. Irteeran egotea hutsa saria baita, hainbeste sufrimendu pairatu duen kirolariarentzat. Poza eta eskertza ez dira gutxi-gorako, hilabete zailak igaro dituelako.

Urnietarrak kilometroak pirlatu behar ditu orain, prestaketa saioretan eta baita lasterketetan ere. Marsellan lehen 100 kilometro egin zituen, eta hoteleraino beste 50.

Abiatzea, berriro txirrindulari sentitzea da orain Euskadi Basque Country Murias taldeko txirrindulariarentzat garrantzitsua.

### Etoile de Besseges itzulian

Frantzia aldean jarraituko du urnietarrak. Egun hauetan, eta iganderarte, Etoile de Besseges itzulian parte hartzen ari da.

## KARTELDEGIA: SASKIBALOA, ARETO FUTBOLA

### SASKIBALOA

#### SENIOR MAILA

##### EMAITZAK

Hernani-Ganbara **72-50**

##### SAILKAPENA

1	Zarautz	<b>28 puntu</b>
7	STL Azkuna	<b>27 puntu</b>
8	Ganbara	<b>21 puntu</b>
9	Alde-Zaharra B	<b>21 puntu</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDA

19:15 Ganbara-Añorga / Lar, 3

### KADETE MAILA

##### EMAITZAK

Ganbara-Arri BKL B **62-33**

##### SAILKAPENA

1	Ganbara	<b>23 puntu</b>
2	Goierrri	<b>23 puntu</b>
3	Aloña Mendi	<b>21 puntu</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Aloña Mendi-Ganbara / Lar, 3

### ARETO FUTBOLA

#### SENIOR MAILA

##### EMAITZAK

Euskalduna-Herrikide **2-3**

##### SAILKAPENA

1	Herrikide	<b>30 puntu</b>
4	Idiazabal	<b>26 puntu</b>
5	Euskalduna	<b>24 puntu</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDA

21:15 Euskalduna-Tolargi / Osteguna, 1

### ANDOINGO TXAPELKETA

##### EMAITZAK

Olaiauna-Powerade	<b>3-4</b>
Ganbara-Lanbroa	<b>2-3</b>
Keler-Academia GF	<b>2-0</b>
Ekaitz-Gorostidi	<b>4-7</b>
Dad Kutxa-Ekhia	<b>3-0</b>
H. Extremeño-Akerbeltz	<b>2-6</b>
Txalaka-Irunberri	<b>6-3</b>
Powerade-Academia London	<b>7-4</b>
C. Extremeño-Pausoka	<b>6-3</b>



Realak gol bakarra lortu zuen Zubietan, nola ez, Nahikarik sartutakoa. REAL SOCIEDAD

## Nahikari Garcia ligako goleatzaile onenen artean

**FUTBOLA** Bederatzi gol sartu ditu Ligan dagoeneko, azkena Atletico de Madrid taldearen aurka

### Erredakzioa URNIETA


Joan zen asteburuan, urnietararen golak berdinketa eman zion Realari. Balio handiko puntua, Ligako lehen postua begipuntu duen aurkariaren aurka. Eta garrantzia handikoa, jaitsiera postuetatik aldentzen jarraitzeko.

Golak ezinbestekoak dira puntuak lortu eta partidak irabazi nahi badira. Alde horretatik, segurtasun handia ematen du Nahikari Garcia. Iaz, 16 gol sartu zituen. Aurten, dagoeneko 9 egin ditu. Realak gorunzko norabidea hartu du, eta urnietararen golei esker klubak merezi duen tokia berreskuratu du. Dagoeneko 12. postuan dago sailkapenean, 16 punturekin. Igande honetan Joan Gamper kirol hirian Barcelona liderraren aurka jokatuko dute. Aukera berria, zaila hori bai, golen zaila betetzen joateko.



Nahikari Garcia. REAL SOCIEDAD

19 urterekin, urnietarra lau garren denboraldia betetzen ari da Zubietan. Bizia, azkarra, geldiezina da. Taldeko gazteenetakoa da; Ligan ere ez dira bere adineko asko izango. Eta hala eta guztiz ere, ez da kokiluzten den jokalaria horietakoa.



Mikel Alonso. EUSKADI FUNDAZIOA

## Mikel Alonsoren debuta atzeratu da, gaixotasunagatik

### TXIRRINDULARITZA

Urnietar gaztea Volta a la Comunitat Valenciana itzulian parte hartzeko izena emanda zegoen, baina Euskadi taldekoak gaixorik ekin dio denboraldiari. Kale egin behar izan du Mallorcan eta Valentzian. Murcia eta Andalucia itzuliatarako onik egon nahi luke. Onik, eta sasoi-ko. Tropelean lehia oso handia baita.

## Trinkete eta pala partidak asteburuan, Urnietan eta Iruran

### PILOTA

Ostegun honetan Iruran, Gipuzkoako trinkete txapelketako partida Usurbilen aurka (18:00). Ostiralean, berriz, Urnietan Udaberri txapelketa gomazko paletan (20:00): Urnieta 1-Soraluze 2 eta Urnieta 2- Batzokiko. Larunbatean, Urnietan, pala partidak (11:00): Urnieta 1-Altzatarra.

## KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

### FUTBOLA

#### PREFERENTE MAILA

##### EMAITZAK

Eas 08-Urnieta	2-0
Euskalduna-Deusto	0-1

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00	Urnieta-Billabona / Lar, 3
15:30	Oiartzun-Euskalduna / Lar, 3

#### ERREGIONAL MAILA

##### EMAITZAK

Euskalduna-Asoleus	3-2
--------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Allerru-Euskalduna / Lar, 3
-------	-----------------------------

#### KOPA, NESKAK

##### EMAITZAK

Euskalduna-Añorga	0-8
-------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Goierrri A-Euskalduna / Lar, 3
-------	--------------------------------

#### JUBENIL MAILA, MUTILAK

##### IGOERAKO LIGAXKA

##### EMAITZAK

Beasain-Urnieta A	3-3
Beti Ona B-Euskalduna A	0-1

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Urnieta A- Beti Ona B / Lar, 3
17:45	Euskalduna A-Danena / Lar, 3

#### KOPA

##### EMAITZAK

Idiazabal-Euskalduna B	3-1
------------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna B-Urnieta B / Lar, 3
-------	---------------------------------

#### KADETE MAILA, MUTILAK

##### OHOREZKO MAILA

##### EMAITZAK

Euskalduna-Martutene	2-0
----------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Vasconia-Euskalduna / Lar, 3
-------	------------------------------

#### KOPA

##### EMAITZAK 4. MULTZOA

Martutene B-Urnieta	0-1
---------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

11:30	Urnieta-Sanse A / Ig, 4
-------	-------------------------

##### EMAITZAK 7. MULTZOA

Euskalduna-Goierrri A	3-1
-----------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

11:30	Ordizia-Euskalduna / Ig, 4
-------	----------------------------

#### KADETE MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Zarautz A-Urnieta	9-1
-------------------	-----

#### ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Urnieta-Touring / Lar, 3
-------	--------------------------

### ESKUBALOIA

#### SENIOR MAILA, MUTILAK

##### EMAITZAK

Egia-Leizaran	37-22
Eibar-Urnieta	29-26

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00	Leizaran-Legazpi / Ig, 4
17:45	Urnieta-Tolosa B / Lar, 3

#### SENIOR MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Munttarpe-Urnieta	24-23
Legazpi-Leizaran	15-27

#### SAILKAPENA

1	Irauli Bosteko	24 puntu
4	Munttarpe	13 puntu
5	Urnieta	12 puntu
6	Leizaran	11 puntu
7	Ordizia	9 puntu

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

-	Urnieta-Alaia B / Lar, 3
17:30	Leizaran-Ordizia / Lar, 3

#### JUBENIL MAILA, MUTILAK

##### GIPUZKOAKO TROFEOA

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

10:00	Urnieta-Elgoibar / Ig, 4
12:00	Leizaran-Ordizia / Lar, 3

#### JUBENIL MAILA, NESKAK

##### GIPUZKOAKO TROFEOA

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

##### 1. MULTZOA

13:00	Urnieta-Aloña Mendi / Lar, 3
-------	------------------------------

##### 2. MULTZOA

16:00	Ereintza-Leizaran / Lar, 3
-------	----------------------------

#### KADETE MAILA, MUTILAK

##### ASTEBURUKO PARTIDA

17:00	Legasa-Leizaran Horia / Lar, 3
-------	--------------------------------

##### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

##### EMAITZAK

Leizaran-Egia	40-35
---------------	-------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Tekniner Eibar-Leizaran / Lar, 3
-------	----------------------------------

#### KADETE MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Ordizia-Leizan Horia	19-13
----------------------	-------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

10:30	Leizan Horia-Ibaiondo / Lar, 3
-------	--------------------------------

##### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

##### EMAITZAK

Alaia B-Leizaran Urdina	16-27
Irun A-Urnieta	26-19

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Leizaran Urdina-Ordizia / Lar, 3
16:00	Urnieta-Alaia B / Lar, 3

## Igoera jokoan ligaska berrian

### SASKIBALOIA

Kadete mailako Ganbarak, joan zen asteburuan Allurralden BKL taldea 62-33 gainditu eta gero, lehen mailara igotzeko play-offa jokatuko du. 12 partidatitik 11 irabazi ditu. Sailkapenean lehen postuan doa, estatistika horrekin. Igoera sei talderen artean erabakiko da, ligaska bidez, otsailaren 11tik aurrera.



GANBARA

## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 1

**ANDOAIN Auzo batzarra**

Udalak errefusa egoki sailkatzeko edukiontzi grisa ezarriko du. Txipduna eta irekiera mugatukoa. *Olagain musika etxea, 18:30.*

**ANDOAIN Arretarako bulegoa**

Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik. *Bastero, 17:00-19:30.*

## OSTIRALA 2

**URNIETA Informazio gunea**

Udalak parte hartze prozesu berria martxan jarri du. *Etxeberri plaza, 10:00-14:30. Guria ingurua, 17:00-20:00.*

**ANDOAIN Ikuskizuna**

Oharra: "Grease - Sing Along", animaziozko zinema eta karaoke saioa bertan behera geratu da. *Bastero.*

**ANDOAIN Kaldereroen festa**

Ondarreta ikastetxeak antolatuta, kaldereroen ospakizuna. Kalejira. *Ondarreta, 15:00.*

**ANDOAIN Elkarretaratze isila**

Ikastolako guraso presoen alde. *Bastero plaza, 17:00.*

## LARUNBATA 3

**URNIETA Informazio gunea**

Udalaren parte hartze prozesu berria. *Kiroledegia ataria, 10:00-14:30.*

**ANDOAIN Kaldereroen etorrera**

Kalezikirik eta zaharren egoitzatik igaro ondoren, kanpalekua jarriko dute Goikoplazan. Ondoren, kalejira. *Ontza elkarte, 17:00.*

**URNIETA Antzezlan**

"Sorginaztien festa". *Lekaio, 18:00.*

## IGANDEA 4

**URNIETA Santa Eskea**

Kantu taldearen irteera. *Lekaio, 17:00.*

**ANDOAIN Santa Eskea, hogeitabosgarren edizioa**

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak herrian barrena Santa Eskean ibiltzeko ohitura tradizio bilakatu du. Duela 25 urtetik hona, hutsik egin gabe, kantari irteten dira. Argazkia, Aiurriko artxibokoa, 2006. urtekoa da.

*Otsailak 4, igandea. 18:00. Larramendi Bazkunaren egoitzatik.*

## ASTELEHENA 5

**ANDOAIN Bilera**

Inauteriak antolatzeko bilera. *Urigin, 19:00.*

**URNIETA Ikastaroa**

Adineko pertsonen zainzaileentzat oinarriko euskara ikastaroa, otsailaren 5etik 16ra. Izen ematea, Bertan bulegoan. Informazio gehiago: 645 733 818 (Banaizbagara). *Lekaio, 15:00-17:00. Dohainik.*

**ANDOAIN Banaketa**

Otsailaren 5etik 9ra errefusa bereizteko edukiontzien banaketa, froga modura abiatu den auzuneetan. *Sorabilla, Olagain, Alejandro Kalonge.*

## ASTEAZKENA 7

**ANDOAIN Hitzaldia**

Oier Araolaza dantzari, kazetari eta antropologoa Euskal Herriko neguko festei buruz arituko da: "Mozorrozik disfrazera: Noruntz doaz gure neguko festak?". Urkiren eskutik. *Urigin, 18:00.*

## OSTIRALA 9

**URNIETA Ikastaroa**

Udalak bidaien diaporama lehiaketa antolatu du, Buruntzaldeko gazteentzat. Izen emateko epea otsailaren 9an amaitzen da. Oinarriak urnieta.eus webgunean. *Izen-ematea: Lekaio, Gaztelekua.*

**URNIETA Lehiaketa**

Makillaje ikastaroa, inauterien atarian. *Ludoteka. 17:00-19:00. Elebiduna.*

## LARUNBATA 10

**URNIETA Inauteri festa**

Ospakizun nagusia bi herrietan. Mozorro desfileak, txaranga eta jarduera gehiago egunean zehar. *Andoain, Urnieta.*

## ASTELEHENA 12

**ANDOAIN Lehiaketa**

Martxoaren 8ko ekitaldiak iragartzeko kartel lehiaketa. Azken eguna, otsailaren 12a. Saria 450 eurokoa da. Oinarriak: andoain.eus. *Bastero.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Tres anuncios en las afueras**

Larunbata, 3: 19:30; 22:00.  
Igandea, 4: 19:30.  
Astlehena, 5: 19:30; 22:00.

**Oihaneko taldea**

Larunbata, 3: 17:00.  
Igandea, 4: 17:00.  
**Rigoletto**  
Opera emanaldia  
London Royal  
Opera Husetik.  
Asteartea, 6: 20:15.

**URNIETA****SAROBE**

**Ovejas y lobos**  
Haur emanaldia.  
Igandea, 4: 17:00.  
**Ballerina**  
Haur emanaldia.  
Ostirala, 16: 17:00.

## SINOPSIK

**Oihaneko taldea**

**Zuz.:** David Alaux. **Herr.:** Frantzia (2017). **Iraupena:** 98 minutu.

## Pinguino itxura duen tigrea

Mauricek pinguino itxura du, baina tigrea da. Bere lagunak gorila, lemura, arraina, bi igel

eta saguzarra dira, eta beraien laguntzaz oihaneko ordena eta justizia lortzea ditu helburu.

**Tres anuncios en las afueras**

**Zuz.:** Martin McDonagh. **Herr.:** Erresuma Batua (2017). **Aktoreak:** Frances McDormand, Woody Harrelson... **Iraupena:** 112 minutu.


## Alabaren hilketa argitzea xede

Mildred Hayes-en alaba hil dute. Geroztik, bost hilabete igaro dira eta ez dute hiltzailea aurkitu. Alabaren kasuaren inguruko berririk ez dagoela jakitean, herriko polizia buru

den William Wiloughby-ekin haserretu, eta bere kasa jardutea erabakiko du. Bere alabaren heriotzagatik justizia egitea du xede Mildred Hayes-ek.

## Martxoak 8, kartel lehiaketa

"Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna -2018" iragartzeko kartel lehiaketa iragarri Andoaingo Udalak. Lanak, koloretan, Basteron aurkeztu beharko dira otsailaren 12a baino lehen. Sari bakarra izango da, 450 eurokoa, Salkin elkarte dendetan kontsumitzeko. Oinarriak andoain.eus gunean aurki daitezke.



## ZORION AGURRAK



ANDOAIN  
**AMAIA ERRAZKIN EZEIZA**  
Amaiak urtarrilaren 27an 21 urte bete zituen. Zorionak aitona Esteban eta amona Mirenen partetik.

## TELEFONO ZENBAKIAK

### URNIETA

Bertan: 943 008 000.  
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
Ertzaintza: 943 538 840.  
Osasun zentroa: 943 006 680.

### ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.  
Udaltzaingoa: 943 300 819.  
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
Osasun zentroa: 943 006 670.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDOAIN

**Larunbata 3 eta igandea 4**  
DIAZ: Kale Nagusia, 19.  
943 59 20 57. Andoain.

### URNIETA

**Larunbata 3 eta igandea 4**  
AGUADO: Kale Nagusia, 21.  
943 55 03 27. Astigarraga.  
Gaez, bi herrietan: Castilla.  
943 55 29 41. Hernani.

## EGURALDIA ASTEBURUAN

ELUR GIROKO EGUNAK DATOZ ESKUALDERA

### Ostegunetik ostiralera



Ostegun gaezan hasita, eta hurrengo egunetan, elur maila herrigunera irits daiteke.

### Igandetik asteartera

Ostiralean hotz egingo du, eta astebururako eta datorren astearen hasierarako hotz gehiago iragarri dute. Andoaingo eta Urnietako metereologoek iragarri bezala, eskualdea elurtuko du eta litekeena da herriguneari ere zuritzea.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

### www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

### diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

# Eskelak Aiurriin: 90 euro

**SARRERAK AGORTUTA**

EÑAUT ELORRIETA  
Zuzenean  
DESERRIKO  
KANTAK

SAROB  
URNIETA

Otsailak 17  
larunbata  
19.00etan

Sarrerak  
Saroben salgai  
10€

Antolatzailea

Loguntzailea





AZKEN BERBA

ANDONI URBISTONDO  
URNIETA

## Urnietza

Urnietza eta Leitza hitzak batuta Urnietza ateratzen zait. Leitzueta ere izan zitekeen. Leitza datorrit burura, kirolari ezagunen kabi emankortzat hartu baita Urnietatik esku-eskura dagoen Nafarroako herria. Boteprontoan Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotariak, Mikel Nieve txirrindularia edota Inaxio Perurena eta Mieltxo Saralegi harri jasotzaileak datorzkit burura. Telebistako pantailan ateratzen diren idoloak. Urnietza ere aberats da alor horretan. Txetxu Leterekin oroitzen naiz sarri. Hiru zortzimilako igo zituen, eta bost igotzeko ahalegina egin. Ondo irakurri duzue! Hiru zortzimilako! Ez dira asko egongo munduan. Zer esanik ez Urnietan. Profesional mailan Mikel Alonso eta Mikel Iturria ditugu tropelean. Ba al da antzeko kasurik beste nonbaiten? Eta beste Jokin Lizeagarik inguruan? Munduko mendi korrikalari onenen pare dabil. Zer gehiago esan Olatz Odriozolari buruz? Munduko Ziklo-kros txapelketan lehiatuko da. Eta Julen Gabirondo segalaria nola ahaztu? Eta, gazteena, Nahikari Garcia? Futbol Ligako goleatzaileetakoa da. Nabarmentzen jarraituko ditugu guztiak. Gauzak kontatzea pribilegio handia baita.

AZKENA



Urnietarrak 2014ko giza-kate erraldoian, Nafarroako Sakana aldean. AIURRI

# Giza-kate erraldoi berria iragarri dute, ekainerako

Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko gizarte mugimenduak Donostiatik abiatu, Bilbotik pasa, eta Gasteizen amaituko den giza-katea iragarri du, datorren ekainaren 10erako. Ibilbidea osatzeko ehun mila lagun beharko dituzte

### Erredakzioa ANDOAIN

Urtea hastearrekin batera, Gure Esku Dagok ekimen berriak iragarri ditu. Deigarriena, eta prozesu oso baten amaiera izango dena, 201,9 kilometroko luzera izango duen giza-katea izango da. Donostiatik abiatu, Bilbotik pasa, eta Gasteizen amaituko da, Eusko Legebiltzarraren atarian.

2014ko giza-kate erraldoia biziberritzeko aukera izango da, neurri handi batean, 2018ko ekainean. Larunbat eguerdian egin zuten aurkezpen ekitaldia, Donostiako Eureka museoan, anbizioz beteriko iragarpenera egiteko: "Nahiago dugu gaur arte lortutakoa aurrera egiteko indar gisa baliatu. Eta gaur, jauzi bat, pauso bat, urrats bat

aurrera egitera goazela esateko bildu gara". Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gure Esku Dago kideen arabera, gutxienez ehun mila lagun beharko dira giza katea osatzeko. Datozen egunetan jarriko da martxan izen-ematea, interneten zein herrietako taldeen eskutik. Andoaindarrei eta Urnietarrei bidaiatzea egokituko zaie. 2014an

Sakana aldean izan ziren, 2018ko kokapena aurrerago jakinaraziko dute. "Bost urtean egin, ikasi eta lortu dugun guztiaren emaitza izango da ekainaren 10a, eta herritarren erabakitze-ko arrazoiak erakundeetara bideratuko ditugu", azaldu zuen Angel Oiarbide bozeramaileak.

Beroketa modura, "Herritarren Ituna" mahai-inguru zikloa abiatu dute. Erabakitze 2019 arrazo jaso nahi dituzte.



Kartela eta logo berria. GED

## Galdeketa, ituna eta giza-katea

Ziklo berriari ekiteko hauxe da 2019rako plana: "Herri galdeketa, Herritarren Ituna eta inoiz ezagutu gabeko mobilizaziorik handiena: giza katea. Hiru lan ildoek bat egingo dute aurtengo urtea amaitzen denean".

## Egunean eguneko albisteak sarean



Puská biltzea Andoain



Inauterien aurkezpen ekitaldia



Bilketa sistema berria

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA